

GERNIKA-LUMO. Gernika Gogoratz-ek antolatuta 'Adostasuna Lagunduz' lelopean egingo dabez jardunaldiak



Gernika Gogoratz Fundazioak antolatutako berbaldiak Elai-Alai aretoan izango dira

Gaur hasiko dira kultura eta bakearen ganeko topaketak

Aurtongo jardunaldietan berbaldi edegiak izango dira herritarrentzat

Irabxe Astury |

Gernika Gogoratz Bakearen Aldeko Ikerketa Zentroak Kultura eta Bakearen Nazinoarteko XII. Jardunaldiak gertatu dauz. Harrera ekitaldia eta izeña emotea gaur bertan egingo dira, Elai-Alai aretoan, arratsaldeko 18:00etatik 20:00ak arte. Aurtengo topaketetan, nazinoarteko gaietan adituak diranak eta munduko hainbat kontinentetan beharrian egon diran aparteko gonbidatuak izango dira.

Bihar, *Berradiskidetza gizarte bananduetan* gaiaren ganeko berbaldiak eskainiko dabez hiz-

lariak. Georgiako Jana Javakhishvili Guatemalan izandako Carlos Martin osagilea eta Kolonbiako REDEPAZeko Martha Gutierrezen berbak entzun ahal izango dira goizean. Arratsalde partean, barriz, Kataluniako Fina Dantik, esperiencia eta erronkak eskolako bitartekaritzaren ganean berba egingo dau; eta jarraian, *Informazioaren kudeaketa eta hedapena bakearen ikerkuntzan* izeneko kontua jorratuko dau Itziar Hernandez Hegoako dokumentalistak. Bihar herritar guztiei zabalduko jaken berbaldia, Maria Eugenia Villarreal mexikarrak emongo dau,

19:30ean. Villarreal, Ertamerikako herrialdeetan ikertzaile ibilitakoa da, eta horrezaz ganera, Giza Eskubideen Batzordea be bada. «Umeen sexu esplotazioaren ganeko liburuak idatzita daukaz», argitu dabé Gernika Gogoratz Bakearen Aldeko Zentroan.

Bakegintzea

Pil-pilean dagozan nazinoarteko gai politikoa be jorratuko dabez Gernikako Kultura eta Bakearen Nazinoarteko XII. Jardunaldietan. Izan be, irailaren 11ren ostean bizitako esperiencia kontau eta gertakizun horren eraginez munduan

BERBALDI EDEGIAK

APIRILAK 24
19:30etik 21:00etara: *Berradiskidetza gizarte bananduetan*. Maria Eugenia Villarreal, ikertzailea eta Giza Eskubideen Batzordekidea (Guatemala).

APIRILAK 25
19:30etik 21:00etara: *Bakegintzea irailaren 11ren ostean*. Trivo Indjic, Jugoslavia ohiko enbaxadorea (Madril).

emoten diran egoerak aztertuko dabez hizlariak. Horretarako, Londresko Davin Bremmer, AEBetako Anita Glesta artistea eta Jugoslavia ohiko Madrilera Enbaxadore Trivo Indjic izango dira etzi Gernikan. Bazkalostean, *Gatazken tratamendua espere sisteman* gaia jorratuko dabe Johan Deklerck kriminologo belgikarraren eskutik. Egun horretako berbaldi edegia 19:30ean hasiko da eta Indjic enbaxadoreak emongo dau.

Apirilaren 26an, Gernikako Bonbaketa oroitzen dan egunean, *Adostasuna lagunduz* izeneko programea egingo da. Egun horretarako, Puerto Ricoko Unibersidadeko irakaslea, Daniel Nina, Elkarriko Gorka Espiau eta Bakearen Aldeko Koordinakundeko Fabian Laespada gonbidatu dabé, beste batzuen artean. «Jardunaldi honeetan Euskal Herrian bizi dogun egoera politikoa aztertu barik ezin ginan geratu», azpimarratu dabe Gernika Gogoratz taldekideek. Bonbardaketa-aren Lekuoen VI. Alkarraldia be egingo dabe, hilaren 26an, Gernikan.

Zapatuan, Bizipenen ekarpena bakegintzan izango da jardunaldietako gai biribila. Eguneko berbaldiak eskaintzeko, Anita Glesta eta Daniel Nina ez eze, Gregorio Armañanzas Iruñako psikiatreak parte hartuko dau topaketetan. Amaierako ekitaldia 13:30ean hasiko da.

Patata barria eta kiwiak polito saldu ziran atzoko merkatu plazan

I.A. |

Atzoko eguraldi eguzkitsua eskualdeko jente nahiko animau eban Gernikako plazara joaten, eta aste guztirako erosketak egiten. Sasoko generoa saldu zan gehienbat. Patata barria, esate baterako, polito saldu zan atzoko merkatuan. Kiloa 0,48 eurotik 0,90 eurora bitartean ibili zan; hau da, aurreko astean baino apur bat garestiago.

Tomate kiloa 6 euroan saldu zan eta letxuga buru bakotxa 60 zentimoan. Piperren dozenea 2,10 euroan emon eben atzo, eta azenarien txortea 45 zentimoan.

Sasoiko frutea

Azken asteetan jazo zan moduan, kipula gorriaren hiruko txortea 0,90 euroan dabil. Kipula txikiak, barriz, 0,60 euroan saldu ziran, hiruko txortan baita.

Kalabazin kiloak euro biko salneurria euki dau, joan dan astean baino euro bat merkeago, beraz. Fruten artean, erosleek kiwiari emon eutsien estimazio handiena. Beti be tamainuaren arabera, 30 zentimo eta 1,65 euroan artean dabil kiwi kiloak Gernikako plazan.

Azkenik, ortuan ereiteko landaraka be erosi ebezan batzuek atzoko plazan. Kipula landarearen zientu bakotxa 2,50 euroan emon zan.

LIBURU EGUNA. Gernikan liburu azokea zabaldu dabe, eta Bermeon oparitxo bat emongo dabe

Bermeon 'Liburu bat egiten' erakusketea gertatu dabe umeentzako, liburutegian

I.A. |

Liburuari eskainitako hil honetan, aparteko ekintzen egitaraua antolatatu dabe Bermeoko herri liburutegiko arduradunek. Aste osoan, esate baterako, eskola umei zuzendutako erakusketa berezi bat egongo da ikusgai uriko udal liburutegian. *Liburu bat egiten* titulupen,

edozein liburu egiteko jarraitu behar diran pausoak zeintzuk diran jakinarazoten dabe erakusketa honetan. «Panelen birtatez idazteko prozesuaren atal guztiak azaltzen dira, eta horretarako testu ulerterrezak eta ilustrazioak erabiltzen doguz», azaldu dabe erakusketaren antolatzaileek. Erakusketan, Atxaga, Sarri-

nandia edo Caro Baroja idazleek eginiko jatorrizko zuzenketak ikusi leitekez.

Bazkideentzat

Liburuaren Eguna dala eta, Bermeoko udal liburutegian oparitxo bana emongo deuteis gaur liburu bat etxera daroen guztiei. Horrezaz ganera, arratsaldeko 20:00etan, Begoña Bilbao *Castañero* berak itzulitako *Bermeo basatia* liburuaren ganean berba egingo dau liburutegian bertan. Bilbao Marc Legassek idatzitako liburu horren pasarte batzuk be irakurriko dauz.

Beste alde batetik, aste gutxian Gernikan Disko eta Liburu Azokea zabalik dagoela esan beharra dago. Etxolak Pablo Picasso kalean ipini dabé. Diska eta Liburu Azokeak aukera ederra eskaintzen dau erosketa merkeagoak egin ahal izateko. Izan be, antolatzaileek iragarri daben lez, erosketetan %10eko deskontuak egingo dabez. Musikearen atalean, euskal taldeen diskoak prezio onean erosteko aukera be badago. Domekara arte egongo da zabalik Gernikako Liburu Azokea.

AGENDA

GERNIKA-LUMO
Topaketak: Gernikako Kultura eta Giza Eskubideen Nazinoarteko XII. Jardunaldiak. Gaur, 18:00etatik 20:00ak arte. Aurtengo topaketetan, nazinoarteko gaietan adituak diranak eta munduko hainbat kontinentetan beharrian egon diran aparteko gonbidatuak izango dira.

ERAKUSKETA
Bermeon 'Liburu bat egiten' erakusketea gertatu dabe umeentzako, liburutegian. Aste osoan, esate baterako, eskola umei zuzendutako erakusketa berezi bat egongo da ikusgai uriko udal liburutegian.

BERMEO
Madril: Bermeo Kultur Etxean ipini dago. Aste osoan, esate baterako, eskola umei zuzendutako erakusketa berezi bat egongo da ikusgai uriko udal liburutegian.